



ANDOINGO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO** **PONENTZIAREN ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, udalerriko lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hauek egin dira:

- **Andoaingo Hiri Antolaketako Plan Orokorren Testu Bateratua, Udalbatzak 2011ko maiatzaren 19an eginiko osoko bilkuran onartua.**
- **Bertan behera uztea Andoaingo Hiri Antolaketako Plan Orokorren behin betiko onespeneren etendura, Azpikolako harrobirako aurreikusitako xedapenei dagokien horretan, Udalbatzak 2011ko irailaren 29an eginiko osoko bilkuran erabakia.**



EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- Lurzoru hiritarraren mugapena aldatzen da.
- 2.- 202, 204, 302, 311, 312, 401, 601, 801, 804, 805, 807, 808, 809, 810, 851 eta 852 zona katastralen mugapena aldatzen da.
- 3.- 602 eta 806 zona katastralak desagertzen dira.
- 4.- 115, 116, 117, 603, 604, 605, 606, 607, 608, 609, 854, 855, 856, 857 eta 858 zona katastral berriak sortzen dira.
- 5.- Sortutako zona berriek honako balioak izango dituzte:

<u>Zona</u>	<u>Hirigintz. klasif</u>	<u>(EK)Eraik Kos.</u>	<u>(BEE)Balio Erag.</u>	<u>(MP)Apark Moduloa.</u>
115	HIRILURRA	510,86 €/m ² (t)	465,48 €/m ² (t)	12.020,24 €
116	HIRILURRA	510,86 €/m ² (t)	417,87 €/m ² (t)	12.020,24 €
117	HIRILURRA	510,86 €/m ² (t)	465,48 €/m ² (t)	12.020,24 €
603	HIRITARGARRIA	510,86 €/m ² (t)	417,87 €/m ² (t)	12.020,24 €
604	HIRITARGARRIA	510,86 €/m ² (t)	465,48 €/m ² (t)	12.020,24 €
605	HIRITARGARRIA	510,86 €/m ² (t)	417,87 €/m ² (t)	12.020,24 €
606	HIRITARGARRIA	510,86 €/m ² (t)	417,87 €/m ² (t)	12.020,24 €
607	HIRITARGARRIA	510,86 €/m ² (t)	417,87 €/m ² (t)	12.020,24 €
608	HIRITARGARRIA	510,86 €/m ² (t)	552,79 €/m ² (t)	10.217,21 €
609	HIRITARGARRIA	510,86 €/m ² (t)	417,87 €/m ² (t)	12.020,24 €



<u>Zona</u>	<u>Hirigintz. klasif</u>	<u>(BEI)Balio Erag.</u>	<u>(MP)Apark Moduloa.</u>
854	HIRITARGARRIA	225,38 €/m ² (t)	6. 010,12 €
855	HIRITARGARRIA	225,38 €/m ² (t)	6. 010,12 €
856	HIRITARGARRIA	225,38 €/m ² (t)	6. 010,12 €
857	HIRITARGARRIA	225,38 €/m ² (t)	6. 010,12 €
858	HIRITARGARRIA	225,38 €/m ² (t)	6. 010,12 €

6.- T azpizona katastrala esleitu zaie 116, 117, 603, 604, 605, 606, 607, 608, 609 zona katastraleko kalei edota kale tarteei eta P azpizona 115 zona katastraleko.

I. ERANSKINA:

Lurzoru hiritarraren mugaketa plano.

II. ERANSKINA:

Zona katastralaren plano.